



2014ko ekainaren 05a | Ordua Euskal Herrian 11:04:03 | EGUNEKOAK | ASTEKARIA | BLOGAK | MULTIMEDIA | Bilatu ARGIA-n



POLITIKA NAZIOARTEA GIZARTEA EKONOMIA EUSKARA INGURUMENA HISTORIA TEKNOLOGIA KULTURA ZIENTZIA IRITZIA
KULTURA LITERATURA Euskal literatura Liburuak Nazioarteko literatura Komikia

Itzulpengintza

INPRIMATU IRUZKINAK

'Fight Club' eleberri ezaguna euskarara itzuli du Naroa Zubillagak

Itziar Ugarte Irizar
2014-06-05

Tweet 6 Gomendatu 2 0 0



Naroa Zubillaga eta Jon Benito liburua aurkezten Literaturian, Garoa liburu-denda (www.uberan.org)

Borroka Kluba izenburupean Chuck Palahniuk idazle estatubatuarren lanik ezagunena euskarara itzuli du Naroa Zubillagak, Txalapartaren eskutik. Joan den ostiralean Donostian eta larunbatean Literaturian, Zarautzen, aurkeztu zuten liburua.

Chuck Palahniukek 1996an argitaratu zuen *Fight Club* eleberria, baina literatura zaleen esparrutik harago, mundu mailako ospea David Fincherrek nobelan oinarrituta egindako filmak mundu eman zion handik hiru urtera.

Argia
JULEN MADARIAGA
«Sobera izan da dena, baina bizirik nago»
Eguzki zori, ETAKO lehen berriztagarrien testigantzak

2416

2415

2417 zenbakia.
2014ko ekainaren 01a
AZALA PDF-n

Astekaria Larrun Hemeroteca
Elkarrizketatuak Egileak Atalak

Babeslea



Argia
Atsegin du! Atsegin duzu.

Zuk eta beste 6.895(e)k atsegin duzue Argia.

Jaso egunero email bakarrean eguneko 10 albisteak. Eta astean behin, astekaria. **Dohainik.**

Idatzi e-posta albiste buletiri

Ale berean...

Iulen Madariaga
"Arnak edonori entregatu ahal zaizkio, salbu Madril eta Parisi"



Itzultzaileak **Gure Liburuak agerkarian** azaldu duenez, oinarrian maitasun istorio bat egon arren, interpretazio anitzetarako bide ematen duen eleberria da. Protagonista kontsumoak gidatutako bizitzarekin gustura ez eta insomnioak jota dagoen gizon bat da. Horri aurre egiteko, minbiziaz gaixo daudenen terapia bileretara joaten hasi eta han ezagutzen duen emakume batekin maitemintzen da. Bertan ezagututako beste kide batekin sortzen du Borroka Kluba.

Euskarara itzuli den Palahniuken lehen lana da *Borroka Kluba*. **Berrian irakur daitekeenez**, AEBtako literatura garaikidea euskarara gutxi itzultzen dela uste du Mikel Soto Txalapartako editoreak eta beraz, itzulpen honek gabezi horri neurri baten aurre egiteko balioko du.

Ikusi albiste hau ondorengo hedabideetan: [Nontzeberri](#) | [Hitzen Uberan](#)



Gomendatu 2

INPRIMATU

0 Comments **argia**

Login

Sort by Newest


Share Favorite

Be the first to comment.

Subscribe Add Disqus to your site




Mursego
"Ez dut uste jendea nire kontzertuetara modernoarena egitera datorrenik"




Euskal Herria ezagutuz
Lurraren barrunbeetan turista... edo esploratzaile



Arrikruz, haitzuloko lehoiaren aztarna




La Verna, espeleologia denen eskura



Mendukilo, Aralarren bihotzera sarbidea



Ez da erosoena, baina merezi du



Cristina Uriarte
"Aurreko legeekin gai izan bagara gure curriculuma garatzeko, oraingoan ere lortuko dugu"



"Nafarroan euskara galtzea eta euskara izan denik ere ahaztea segidan etorri dira sarri"

Kazetaritza independentea eta profesionala egiten dugu, euskaraz eta euskaldunontzat.

Idatzi helbide elektronikoa

HARPIDETU ORAIN

ALTA EMAN

EGUNEKOA POLITIKA NAZIOARTEA GIZARTEA KULTURA EUSKARA EKONOMIA ASTEKARIA MULTIMEDIA

Nor gara | Kontakua | Lege oharra | RSS jariora | Iragarri | Harpidetu | Tel: 943 371 545

1998 - 2014 KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.
ARGIAko edukia kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratzeko libre zara, beti ere, gure egiletza direla aitortzen baduzu eta baldintza beretan egiten baduzu.